

Abandonatutako ibilgailuak.

Deskribapena: Bide publikoan abandonatutako ibilgailuek salaketa jaso dezakete, aurretik, abandonatuta dagoela (hondakin solidoa) erabakitzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen badute udaltzainek. Ibilgailu horiek Zizur Nagusiko Udaltzaingoaren biltegira eramango dira (Arridia kalea, 26)

Izapideak egiteko unitatea: Zizur Nagusiko Udaltzaingoa.

Helbidea: Arridia kalea, 26

Telefonoa: 948 28 12 50 - 08:30etik 14:30era, astelehenetik ostiralera.

- Faxe: 948 18 74 33

Telefonoa: 609 487 118, 24 orduz urteko 365 egunetan.

Baldintzak: Udaltzainek ibilgailua kanpotik nola dagoen eta nolako gabeziak dituen, eta dokumenturik ez duela egiaztatu ostean, eraman eta hondakin solido (txatarra) bihurtuko da.

Lege oinarria: Trafiko, Motoredun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikuluduna onetsi zuen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzazko Errege Dekretua eta Hiri Hondakin Solidoei buruzko 10/1998 Legea.

Oharrak: Edozein herritarrek eska dezake zerbitzua. Horretarako, goian aipaturiko telefonora deitu behar da edo egoera horren berri emateko eta abandonaturiko ibilgailua non dagoen zehazteko agiri bat aurkeztu komisariaren batean edo Erregistro Orokorraren bitartez.